# TXOSTENA BALANCE 2013



etb1

etb2

etb3

etbk

canalvasco

radio euskadi

euskadi irratia

radio vitoria

eitb musika

gaztea

eitb.com



**Maite Iturbe Mendialdua**
EITBko Zuzendari Nagusia
Directora General de EiTB

# Txostena 2013 Balance

2013ko ekitaldia balantze positiboarekin itxiko dugu.  Aurtengoa exijentzia handiko urtea izan da, eta EiTB taldeak eduki eskaintza zabala plazaratu du, euskal herritarrekin hartutako konpromisoari erantzuteko.

Aurtengo helburua zen aurrekontuen oreka lortu da, eta Euskadiko lidertza sendotu da, Komunikazio Talde gisa. Alde horretatik, Estatuko ikus-entzunezko arlo publikoa oro har kontuan hartuta, esan dezaket EiTB dela komunikazio talde publikoen artetik ondoen gainditu dituena aurrekontu txikiagoa/inpaktu sozial handiagoa aldagaiak 2013an. EiTBk lortu du ekitaldia defizit barik ixtea,  zorrik gabe eustea eta Komunikazio Taldearen audientzia metatua gora ekartzea.

Erabaki zailak hartu beharra egokitu zaigu. Eta neurri guztiok hartzean, ezinbesteko irizpideak izan dira zuhurtasuna, profesionaltasuna eta enpresaren epe ertain eta luzeko sostengarritasuna. Baina epe laburreko ikuspegitik harago, etorkizunera ere begiratu dugu, 2013-2016ko Plan Estrategikoa onartu dugu multimedia proiektua eta epe luzeko bideragarritasuna sendotzeko.

2013an, berrikuntza sakona egin da ETB1en euskarazko eskaintza irmotzeko. Asmo handiko proiektua da. Audientzia sendotzeko epea luzea izango dela deritzogu. Hiru urteko planteamendua egin dugu, eta arrakastatsua izan dadin ahaleginduko gara.

EiTBk sendo eutsi die eskaintzari eta emaitzei bai telebistan, bai irratian eta bai interneten. Albistegietako lidertza finkatu eta hobetu egin dugu. Hedabidearen neutraltasuna eta pluraltasuna erakusten dugu egunero, eta sinetsita gaude EiTB denona dela eta denon zerbitzura dagoela. Ondo sintetizatzen du hori hurrengo kanpainak:  kolore guztietako eta guztietarako. EiTB, komunikazio talde liderra Euskadin. Publikoa da.

Era berean, EiTBk konpromisoa hartuta dauka hedabide arduratsua izateko, gizarte erantzukizunarekin eta balio positiboen transmisioarekin konprometitua, eta ez dauka ahazteko. Gure zeregintzat daukagu gizarte kohesioaren alde egitea, dibertsitatea errespetatuz.

Cerramos el ejercicio con un balance de resultados de 2013 positivo.  Ha sido un ejercicio exigente en el que el Grupo EiTB ha ofrecido una amplia oferta de contenidos  para cumplir con el compromiso contraído con la ciudadanía vasca.

Se ha logrado el objetivo de equilibrio presupuestario y se ha reforzado la posición  de Grupo de Comunicación líder en Euskadi. En ese sentido, considerando el conjunto del sector audiovisual público del Estado, puedo afirmar que EiTB es el grupo de comunicación público que mejor ha sorteado las variables de menor presupuesto/mayor impacto social a lo largo de 2013. EiTB ha cumplido el objetivo de cerrar el ejercicio sin déficit, mantener la compañía sin deuda y aumentar la audiencia acumulada del Grupo de Comunicación.

Nos ha tocado tomar decisiones difíciles. Todas las medidas se han materializado considerando  criterios de prudencia, profesionalidad y sostenibilidad empresarial a medio y largo plazo. Mirando al futuro, hemos aprobado el Plan Estratégico 2013-2016 para reforzar el proyecto multimedia y la viabilidad a largo plazo.

A lo largo de 2013 se ha realizado una profunda renovación de ETB1 para consolidar la oferta en euskera. El  proyecto es ambicioso. Estimamos que la consolidación de la audiencia va a requerir plazo largo. Está planteado a tres años vista y vamos a intentar que sea un éxito.

EiTB ha mantenido gran consistencia en la oferta y resultados en televisión, radio e Internet. Hemos consolidado y mejorado el liderazgo de los informativos. Acreditamos diariamente la neutralidad y pluralidad del medio y estamos convencidos de que EiTB es de todos y está al servicio de todos. Lo sintetiza bien la campaña: de todos los colores y para todos los colores,  ¡es público!.

Asimismo EiTB mantiene su compromiso por ser un medio responsable y comprometido con la responsabilidad social y la transmisión de valores positivos. Es nuestra misión contribuir a la cohesión social con el respeto a  la diversidad.




# ALBISTEAK / NOTICIAS

## Zuzendaritza aldaketa

Eusko Legebiltzarrak Maite Iturbe izendatu zuen EiTBko zuzendari nagusi 2013ko martxoan. Geroztik, zuzendaritza taldea honako partaide hauek osatzen dute: Pello Sarasola (ETBko zuzendaria), Odile Kruzeta (EiTBko Irratien zuzendaria eta Komunikazio Taldearen Koordinatzaile Editoriala), Jesus Elguezabal (EiTBko zuzendari-kudeatzailea) eta Andoni Aranburu (EiTBko Estrategia eta Komunikazio zuzendaria).

## Denok Batera kanpaina

Euskarazko programazioaren aldeko apustua egin du ETBk kurtso honetan. Asmo handiko programazioa, betebetea eta denetarikoa prestatu du barne produkzioaren aldeko apustu irmoa egiten duen euskarazko kateak. Euskaraz 12 telebista ordu berri eskaintzen ditu egunero, aktualitatea eta entretenimendua oinarri hartuta, genero guztiak jorratuz.

## Plan estrategikoa

EiTBk 2013-2016 aldirako plan estrategikoa aurkeztu du aurten. Zortzi helburu nagusitan laburbiltzen da: zerbitzu publikoaren ereduan EiTB sendo finkatzea; informazioan eta aktualitateko gaietan liderrak izatea; euskarazko audientzia sendotzea; multimedia arloan erreferentea izatea; ‘Gu’ ikuspegi partekatua lantzea; ikus-entzunezko sektorearekin lankidetza; teknologiaren kudeaketan efizienteak izatea, eta EiTBren epe luzeko jasangarritasuna.

## 2011-2012 Gizarte Eratzunkizun Memoria

EiTBk 2011-2012 Gizarte Erantzunkizun memoria egin eta egiaztatu du GRI A+ Media nazioarteko gehieneko maila lortuz.

Gizarte eta enpresa erantzukizuneko eredu baten atzean enpresari buruzko kontzeptu zabal bat dago, gizarteari irekia. EiTBn beti sentitu izan dugu enpresa hau agenteen, lanaren eta bestelako agenteekiko konpromisoen sare handia dela. Zentzu horretan, EiTB bere hormetatik irten den enpresa da; interes publikoa sustatzen duen erakundea da eta euskal gizartearen erakundea, hain zuzen ere.

## Casting on line

Euskal Telebistak komunikatzaileak aurkitzeko casting orokorra abiatu du aurten. Helburu nagusia aurpegi eta profesional berriak topatzea da. 18 urtetik gorako hautagaiek parte hartu ahal izan dute, eta, proposamenak bidaltzeko, eitb.com-en formulario bat bete behar izan dute. Castingak hiru fase izango ditu.

## Nueva Dirección

El Parlamento Vasco eligió a Maite Iturbe como nueva directora general de EiTB en marzo de 2013. Junto a ella conforman el nuevo equipo directivo: Pello Sarasola, director de ETB; Odile Kruzeta, directora de EiTB Radios y Coordinación Editorial; Jesús Elguezabal, director-gerente de EiTB, y Andoni Aranburu, director de Estrategia y Comunicación de EiTB.

## Campaña Denok Batera

La programación en euskara ha sido la principal apuesta de Euskal Telebista para este curso. ETB1 cuenta con una programación ambiciosa, variada, completa y con una decidida apuesta por la producción propia. Una parrilla que aborda todos los géneros, con la actualidad y el entretenimiento como referentes principales. 12 horas diarias nuevas de televisión en euskara, con contenidos de producción propia.

## Plan estratégico

EiTB ha presentado su plan estratégico para el período 2013-2016. Este plan estratégico quiere dar respuesta a la vocación de servicio público de EiTB y se recoge en ocho objetivos principales: modelo de servicio público; liderazgo en informativos y actualidad; reforzar nuestros productos en euskera; ser referentes en procesos multimedia; trabajar desde el diálogo y la participación; promover el desarrollo del sector audiovisual; eficiencia tecnológica, y sostenibilidad del proyecto EiTB

## Memoria Responsabilidad Social 2011-2012

EITB ha vuelto verificar ante AENOR los proyectos llevados a cabo en 2011 y 2012, obteniendo el máximo nivel, GRI A+.

Detrás de un modelo de Responsabilidad Social Empresarial existe un concepto de empresa expandido, abierto a la sociedad. En EiTB siempre hemos entendido que la empresa es una gran red de agentes, de trabajo, de compromisos con otros agentes. En este sentido, EiTB es una empresa que nunca ha querido cerrarse dentro de sus propias paredes; es una institución que promueve el interés público, que pertenece a la sociedad vasca.

## Casting on line

Este año Euskal Telebista ha convocado un casting general de comunicadores, para buscar nuevos rostros y profesionales. Los candidatos y candidatas, mayores de edad, han podido enviar sus propuestas rellenando sus datos en eitb.com. El casting constará de tres fases diferentes.




## EiTB Maratoia

Transplanteak izan ziren 2013ko elkartasun maratoiaren hari nagusiak. Urtero bezala BIOEFekin elkarlanean antolatu zuen EiTBk ekitaldi solidarioa; hau da, Osasun arloko Berrikuntza eta Ikerketarako Euskal Fundazioaren eskutik. Bi helburu nagusi izan zituen 2013ko EiTB Maratoiak: organo eta ehunen transplanteen gaineko ikerketarako fondoak biltzea, eta gizartea ohartaraztea organo-emateak daukan garrantziaz.

## Unicef

UNICEF eta EiTB lankidetzan aritu ziren elkartasun proiektu bitan: haurren desnutrizioaren aurkako ‘Cumpledías’ kanpainan, eta Siriako haurren alde.

## ‘DSS 1813-2013’

EiTBk ‘DSS 1813-2013’ dokumentala aurkeztu zuen Donostiako Zinemaldian. Donostia erre, suntsitu eta berreraiki zuteneko Bigarren Mendeurrena zela aitzakiatzat hartuta, berrehun urteotako kronika soziala bildu zuen lanak.

## FesTVal: ‘Tu Edificio Favorito’ren aurkezpena

ETBk ‘Tu Edificio Favorito’ saioa aukeratu zuen FesTValean, Gasteizko Telebista jaialdian, aurkezteko. Taldearen programazio eskaintza zabalaren ordezkaria izan zen Africa Baetak gidatutako saioa.

## Masterclass Innova Basque Audiovisual

Patty Genestek, Formatuen Aitortza eta Babeserako Elkartearen eta Absolutely Independent enpresaren presidenteak, masterclass esklusibo bat eskaini zuen EiTBn.

## EBEuskadi

EBEuskadi jardunaldi teknologikoen bigarren edizioa burutu zuten EiTBko Multibox aretoan. Internet hizpide hartuta, ‘Bilatu zure aukerak’ lelopean, orainaz eta geroaz hitz egin zuten.

## EiTB Maratoia

Los trasplantes han sido el hilo conductor del maratón solidario que organiza todos los años EiTB conjuntamente con la Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias, BIOEF. El objetivo ha sido recaudar fondos para la investigación de trasplantes de órganos y tejidos, y concienciar en la importancia de la donación.

## Unicef

UNICEF y EiTB han colaborado en dos proyectos solidarios: en la campaña ‘Cumpledías’, que lucha contra la desnutrición infantil, y a favor de la infancia siria.

## ‘DSS 1813-2013’

EiTB estrenó en el Festival de Cine de San Sebastián el largometraje documental ‘DSS 1813-2013’. Realizado con motivo del Bicentenario de la quema, destrucción y posterior reconstrucción de la ciudad, recoge la crónica social de los últimos 200 años de la ciudad.

## ‘Tu Edificio Favorito’ en FesTVal

ETB seleccionó el programa de ETB2 ‘Tu Plato Favorito’ conducido por África Baeta para presentarlo en el FesTVal, festival de televisión de Vitoria-Gasteiz, en representación de la amplia oferta televisiva de la cadena vasca.

## Masterclass Innova Basque Audiovisual

Patty Geneste, presidenta de la Asociación para el Reconocimiento y la Protección de Formatos y de la empresa Absolutely Independent, ofreció una masterclass exclusiva en EiTB.

## EBEuskadi

La sala Multibox acogió la segunda edición del evento tecnológico EBEuskadi, en el que se debatió sobre la web social y las tendencias actuales y futuras.



# ETB1











## Airean

ETB1eko apustu nagusietako bat dugu 'Airean', Jaime Otamendik gidatutako magazine-tertulia. Egunak utzi dizkigun berriak eta azken ordukoak lantzen ditu solasaldi, elkarrizketa eta erreportajeen bidez. Solaskide eta kolaboratzaile sare zabalaz gain, Jaimek Ilaski Serrano eta Usoa Arbelaitz kazetarien laguntza du platoan.

'Airean' es una de las apuestas más importantes de producción propia de ETB1 para este temporada. El espacio de actualidad presentado por Jaime Otamendi aborda las noticias del día y también la última hora con tertulias, entrevistas y reportajes. Jaime está acompañado en el plató por las periodistas Ilaski Serrano y Usoa Arbelaitz, y cuenta además con un amplio equipo de tertulianos y colaboradores.

## 101 Gaztelu

ETB2n ez ezik, ETB1en ere abentura lehiaketa batez gozatzeko aukera izan dugu 2013an. Nola ez, Julian Iantzi izan dugu '101 Gaztelu'ren gidari.

ETB1 ha tenido este año 2013 su propio reality de aventuras, '101 Gaztelu', que como no podía ser de otra manera ha tenido como presentador a Julian Iantzi.

## Kontrako Eztarria

Anjel Alkainek, Xabier Euzkitzek, Iker Galartzak eta Jon Plazaolak gidatutako entretenimendu saioak ikuspegi propioaz azaltzen ditu egun eguneko gai nagusiak.

Anjel Alkain, Xabier Euzkitze, Jon Plazaola e Iker Galartza conducen este informativo de humor en el que sacan punta a la actualidad.

## Tribuaren Berbak

Kike Amonarrizek euskarari eta komunikazioari buruzko programa berria jarri du abian. Euskararen alderdirik deigarrienak, interesgarrienak eta ezezagunenak erakusten dizkigu astero modu entretenigarri eta dinamiko batean.

En nuevo programa semanal dirigido y presentado por Kike Amonarriz sobre el euskara y la comunicación tiene como objetivo mostrar de una manera entretenida y amena los aspectos más llamativos, interesantes y desconocidos del euskara.

## Tumatxak

Euskal musikaren munduan zehar bidaia ahaztezina proposatu digu 'Tumatxak' saioak. Euskal Herriko abeslari eta talde ezberdinen arrakastaren gakoa zein izan den jakiteko aukera izan dugu Zuhaitz Gurrutxagarekin. 'Hizkamizka' lehiaketa ere gidatzen du futbolari ohiak

El programa 'Tumatxak' ha realizado con Zuhaitz Gurrutxaga un viaje inolvidable a través del mundo de la música, indagando en los secretos del éxito de los grupos y músicos más conocidos. El ex futbolista también conduce el concurso 'Hizkamizka'.

## Txoriene

‘Txoriene’ sukaldaritza saioak bigarren denboraldiari ekin dio, oraingo honetan Pili Manterola sukaldariak aurkeztuta.

‘Txoriene’ ha iniciado su segunda temporada de la mano de la cocinera Pili Manterola.



## Euskal Herria Zuzenean

Euskal Herri osoko gaurkotasuna bertatik bertara jarraitzen du Sara Gandarak gidatzen duen saioak, informatiboetan sartzen ez diren berriak bilduz.

Sara Gandara presenta este programa que sigue in situ la actualidad más cercana de Euskal Herria, interesándose por aquellos temas que no tienen cabida en los informativos.



## Irrikitown

Eguneroko bizitzako gertakizunak dira ‘Irrikitown’ saioko umorearen funtsa, Asier Hormaza, Iker Galarza, Mirian Cabeza, Andoni Agirregomezkorta eta Itziar Atienza aktoreekin.

‘Irrikitown’ nos ofrece su particular visión de la actualidad y el día a día a través de los sketch de humor protagonizados por Asier Hormaza, Miriam Cabeza, Iker Galarza, Andoni Agirregomezkorta e Itziar Atienza.

## Txikon Xtreme

Planetako mendi gailur esanguratsuenetan lortutako kirol erronkak erakutsi zizkigun lehendabizi Alex Txikonek. Orain, beste kirol diziplina batzuetan nola moldatzen den ikusi dezakegu.

Alex Txikon comenzó su aventura televisiva acercándonos sus retos deportivos ligados a las grandes montañas del planeta. Ahora se atreve con otras disciplinas deportivas.




## Txapela Buruan

‘Txapela Buruan’ saioa estreinatu zuen ETB1ek. Lau gaztek Europan barrena egin zuten bidaia erakutsi zuen realityak.

ETB1 estrenó el programa ‘Txapela Buruan’, un reality viajero que siguió los pasos de cuatro jóvenes en InterRail a través de Europa.

## Bost Baietz

‘Bost Baietz!’ eguneroko lehiaketa dinamikoa gidatzen du Julian Iantzik. Euskal Herriko kale, azoka edo jai guneetan topatzen ditu lehiakideak.

Julian Iantzi conduce el dinámico concurso diario ‘Bost Baietz!, en el que recorre calles, fiestas y mercados en busca de concursantes.




## Egun On Euskadi eta Debatea

‘Egun On Euskadi’ goizeko albistegia gidatzen dute astelehenetik ostiralera Estepan Aldamiz-Etxebarriak eta Olaia Urtiagak. Eguneko berrien errepasoa, elkarrizketa eta solasaldia biltzen ditu. Ostegunetan, berriz, ‘Debatea’ dugu ikusgai Xabier Usabiagarekin.

Estepan Aldamiz-Etxebarria y  Olaia Urtiaga conducen de lunes a viernes el informativo matinal ‘Egun On, Euskadi’, que incluye el repaso a las noticias del día, una entrevista y la tertulia de colaboradores.  Los jueves, Xabier Usabiaga presenta el espacio ‘Debatea’.






# ETB2



## Informativos, líderes de audiencia

'Teleberri', albistegien artean nagusi izan da azkeneko hamalau hilabeteetan. Azaroan, %17,6ko audientzia zatia lortu du, urrian baino 0,5 puntu gehiago. Egunero, 245.000 ikus-entzulek bat egiten dute uneren batean ETB2ko albistegiarekin Euskadin eta eragin eremuan. 'ETB Hoy', 'Entrada Libre' eta 'El Dilema' saioek osatzen dute ETB2ko albistegi eskaintza.

'Teleberri' mantiene el liderazgo en informativos por catorce meses consecutivos. En noviembre, los informativos de ETB2 alcanzaron el 17,6% de cuota de pantalla, superando en 5 décimas el dato alcanzado en octubre. A diario, 245.000 telespectadores conectan en algún momento con la emisión del 'Teleberri' en Euskadi y su área de influencia. La oferta informativa de ETB2 se completa con los espacios diarios matinales 'ETB Hoy' y 'Entrada Libre', y el debate semanal de 'El Dilema'.



## El Conquistador

Oskar Sanz Iriberri lehiakide nafarrak irabazi zuen 'El Conquistador del Fin del Mundo' lehiaketaren bederatzigarren edizioa. Ezin ahaztu, gainera, El Menton de Fogarty Bilboko musika taldeak ETB2ko saioari kanta bat eskaini diola.

El concursante navarro Oskar Sanz Iriberri se proclamó nuevo ganador de 'El Conquistador del Fin del Mundo'. Además, el quinteto bilbaíno El Mentón de Fogarty  compuso una canción dedicada al programa y grabó un videoclip con la participación de lantzi, Korta y Oiarzabal.

## Gracias, Petrov

ETBk 'Eskerrik Asko, Petrov', azken hiru hamarkadetako historiari buruzko dokumental sorta estreinatu zuen, Gorka Otxoarekin. Kontakizuna 1983an abiatuta, urte horretan hasi zen, hain zuzen ere, ETB martxan, albiste txundigarriak eta gure historiako une gogoangarriak bildu zituzten. Baina baita historia txikiak ere; xehetasunak, irudiak eta ia ahaztuta genituen pertsonaiak.

Euskal Telebista estrenó 'Gracias, Petrov', una serie documental presentada por el actor Gorka Otxoa y que realizó un recorrido a través de estas tres últimas décadas. Noticias impactantes e hitos de nuestra historia. Pero también pequeñas historias, detalles, imágenes y personajes casi olvidados rescatados de nuestros archivos.



## Robin Food 600

SEAT 600 markako auto karabana batekin ospatu zituen David de Jorgek 'Robin Food' saioaren 600 atalak otsailean. Irailean, berriz, gogotsu ekin zion 5. denboraldiari, azken urtean 110 kilo galdu ondoren.

David de Jorge celebró en febrero sus 600 programas en antena capitaneando una caravana de SEAT 600 por Bilbao. En setiembre comenzó su 5ª temporada más pletórico que nunca, después de haber perdido en el último año 110 kilotones de peso.

## LND 18 urte




Urtez urte euskal ikus-entzuleen arretari eustea lortu duen saioetako bat dugu ‘La Noche de...’. Asteartero, zine munduko datu harrigarriak, istorio dibertigarriak eta hamaika bitxikeri kontatu dizkigu Felix Linaresek. Urtero, katearen bataz besteko audientzia gainditu du; 2013an, %12,1eko audientzia zatia lortu du.

Si hay un programa que ha conseguido llegar al corazón de los telespectadores vascos, ese es ‘La Noche de...’. Durante los últimos 18 años hemos podido seguir los asombrosos datos, las divertidas historias y las innumerables curiosidades sobre el mundo del cine que Félix Linares nos ha relatado cada martes por la noche. Con su mayoría de edad, el programa se ha convertido en uno de los referentes de la cadena y ha superado año tras año la media de audiencia de la misma. En 2013, el programa ha alcanzado el 12,1% de cuota de pantalla.

## Sin Ir Más Lejos



Arratsaldero arratsaldero, ETB2ko ikus-entzuleek gaurkotasunarekin eta iritziarekin hitzordua dute, Klaudio Landaren eskutik. Saioak aktualitate-gaiak lantzeko elkarrizketa interesagarriak eta mahainguruak eskaintzen ditu.

Cada tarde, los espectadores de ETB2 tienen una cita con la actualidad y la opinión de la mano de Klaudio Landa. El programa incluye entrevistas y un debate sobre los principales temas que están en boca de todos.

## Implicada



‘Implicada’ dokurreality saioan Ana Urrutiak muturreko bizimodu, ogibide eta egoerak gertu-gertutik erakutsi dizkigu.

En el docureality ‘Implicada’, Ana Urrutia ha vivido en primera persona las particularidades y extremos de las comunidades, oficios y negocios que conforman nuestra sociedad.

## Duelo en la Cocina



Euskadiko eta hainbat herrialdetako produktuak lehian jarri ditu Sara Gandarak gidatutako saioak. Atal bakoitzean herrialde bat izan dute gonbidatu nagusi, eta bere sukaldaritzako hiru produktu adierazgarri aukeratu dituzte Euskadiko produktuekin norgehiagoka egiteko.

El programa gastronómico presentado por Sara Gandara ha enfrentado en la cocina a Euskadi y diversos países invitados. ‘Duelo en la Cocina’ ha mostrado el buen hacer de nuestros productos y productores, enfrentándolos a los productos estrella de otros países.

## Ya Queda Menos




Oscar Terolek eta Sara Gandarak gidatutako saioak asteko aktualitatea umorez errepasatzea zuen helburu. Bertan, Asier Hormaza, Miriam Cabeza, Iker Galarza, Humberto Gutierrez, Santi Ugalde eta Maribel Salas aktoreek egindako umore esketxak eta pertsonaiak ikusi genituen.

Oscar Terol y Sara Gandara estrenaron ‘Ya Queda Menos’, un repaso a la actualidad semanal en clave de humor. Además de las presentaciones en el plató, los actores Maribel Salas, Miriam Cabeza, Asier Hormaza, Santi Ugalde, Iker Galarza y Humberto Gutiérrez daban vida a los personajes de los sketch de humor.

# ETB3 / ETB Sat / Canal Vasco




## ETB3, euskal gaztetxoenen erreferentzia

Apurka-apurka gaikako telebisten artean gora egiteaz gainera, leku eta oinarri sendoa hartzen hasi da ETB3. Euskaraz oso-osorik gaztetxoentzat emititzen duen telebista kateak marka nabarmena lortu du. 4tik 12ra urte bitarteko umeen tartean, eta gaikako hirurogei eta hamar telebista kate inguruen artean 4. postuan dago, hain zuzen ere.

## ETB3, referente de los niños y niñas vascos

La cadena destinada a los vascos más jóvenes, además de hacerse un importante lugar entre las cadenas temáticas, tiene una base firme y está cosechando importantes resultados. Ocupa en el target de 4 a 12 años la cuarta posición entre cerca de 70 televisiones temáticas.

## ETB Sat internet bidez

2013ko maiatzetik, ETB Sat-en seinalea Interneten (eitb.com eta EiTB Nahieran) eta kable bidezko telebistaren bitartez jarraitu daiteke. Nazioarteko katea teknologia errazago, modernoago eta merkeago baten bidez helaraztea da helburua. ETB Sat-ek programazio elebiduna du eta Euskal Telebistako saiorik nabarmenak zabaltzen ditu, albistegiak eta kirol emanaldiak ere bertan direla.

## ETB Sat a través de internet

Desde mayo de 2013, los espectadores pueden seguir las emisiones de ETB Sat a través de Internet ( eitb.com y EiTB alacarta) y de algunas de las principales cabeceras de cable. Se trata de difundir la programación de este canal internacional mediante una tecnología más accesible, moderna y económica. Una cobertura internacional que de manera bilingüe, exporta los programas más destacados de los canales generalistas del grupo, así como los informativos y las principales retransmisiones deportivas.

## Canal Vasco lehiaketa

Akira Tokuhiro dugu Canal Vasco/ ETB Sat lehiaketaren azkeneko edizioko irabazlea. Jatorri japoniarrekoa da Tokuhiro, eta Idahoko Unibertsitateko irakaslea da. Victoria Bañales Atxikiria emaztearekin batera bisitatu zuen Bilboko EiTBko egoitza.

## Concurso Canal Vasco

Akira Tokuhiro es el ganador de la última edición del concurso Canal Vasco/ ETB Sat. De origen japonés, Tokuhiro es profesor de la Universidad de Idaho, y visitó la sede de EiTB en Bilbao con su mujer Victoria Bañales Atxikiria.










# EUSKADI IRRATIA

Erreferentzia informatiboak sendotuta itxi du urtea Euskadi Irratiak. Maite Artolaren 'Faktoria'k ertz guztietatik egiten dio begiratua aktualitateari goizetan, eta ahots kualifikatuen eskutik dator aktualitate horren analisia. Arratsaldean berriz, 'Mezularia'n egiten dio Ainhoa Etxebestek errepaso gertukoa eta sakona egunean jaso denari.

Informazioaz gain, entretenimenduak ere tarte zabala du Euskadi Irratian: Manu Etxezorturen 'Faktoria', Itziar Alduntzinen bazkalosteko 'Kantu Kontari' eta Xabi Larrazabal eta Maider Segurolaren 'Hiri Gorrian' urbanoa horren lekuko.

Txetxu Urbieta eta bere lantaldeak, bestalde, 'Hiru Erregeen Mahaia'n kirol ugariren emankizunak eskaintzen ditu, eta entzuleen etengabeko partehartzearekin girotzen ditu Euskadi Irratiko asteburu arratsaldeak.

Euskadi Irratia ha concluido el año con una referencia informativa reforzada. Por las mañanas, 'Faktoria' de Maite Artola, observa la actualidad desde todos sus ángulos, compartiendo micrófono con voces cualificadas que analizan la actualidad. Por la tarde, el espacio 'Mezularia' recupera su compromiso con la actualidad más cercana y profunda, de la mano de Ainhoa Etxebeste.

Además de la información, el entretenimiento es otro de los pilares de Euskadi Irratia: 'Faktoria' de Manu Etxezortu; las sobremesas de Itziar Alduntzin en 'Kantu Kontari'; y el magacín de carácter urbano 'Hirigorrian', con Maider Segurola y Xabi Larrazabal.

El tiempo para los deportes llega de la mano de Txetxu Urbieta y sus compañeros de 'Hiru Erregeen Mahaia'; mientras que, en las tardes de los fines de semana, los protagonistas son los oyentes y sus abundantes aportaciones.




# RADIO EUSKADI

30 urte bete ditu Radio Euskadik 2013.urtean eta entzuleekin ospatu du haiek eskainitako konfidantza eta konplizitatea, bi ekitaldi handirekin: Informazioaren eta gogoetaren ardatza hartuta, apirilaren 30ean programazio berezia egin zuen bizi dugun aro zailari nola buelta eman argitu nahian. Entretenimienduaren eta musikaren ardatza hartuta berriz, azaroaren 22an, AlhondigaBilbaoko atrioa saio koloretsu batek jantzi zuen.

Irailaz geroztik bere programazioa berrituta ageri da Radio Euskadi. Albiste zerbitzu plural eta kalitatezkoaz gain, musikak eta dibulgazioak pisu handiagoa hartu dute. Horrela ba, Dani Álvarezek gidatzen du Boulevard albistegia eta Loreto Larumbek hartu du 'Boulevard' magazinaren ardura. Arratsaldearen tonua aldatu egin du 'Iflandia' kultur saioak, eta iluntzean entretenimendua nagusitu da 'Graffiti' berrituaren eskutik. Eguneko azken bi orduak berriz, egunaren analisia egiteko bideratzen ditu Xabier García Ramsdenek 'Ganbara'n.

Radio Euskadi ha cumplido 30 años, y ha querido celebrar, junto a sus oyentes, la confianza y la complicidad aportada todos estos años. Para ello la emisora organizó dos grandes eventos. Por un lado, con la información y el análisis como base, el 30 de abril, ofrecieron 24 horas de programación especial en la que la radio se convirtió en el altavoz de diversas ideas para perfilar el futuro. Por otra parte, el 22 de noviembre, realizaron un programa muy especial desde el atrio de AlhóndigaBilbao, con actuaciones musicales y mucho humor.

En lo que respecta a su nueva temporada, RE se mantiene en su firme apuesta por la información, mientras que la divulgación y la música adquieren mayor protagonismo. Dani Álvarez y Loreto Larumbe conducen las mañanas con el informativo y el magazine de 'Boulevard', respectivamente. El nuevo programa cultural 'Iflandia' ha cambia el tono de las tardes, y al anochecer, el entretenimiento es la clave del renovado 'Graffiti'. Las dos últimas horas del día son para Xabier García Ramsden y el análisis de la jornada en 'Ganbara'.











# GAZTEA

Gazteen artean musika eta entretenimenduaren erreferente izatea da Gaztearen erronka eta hain juxtu ere, 2013garren urtean, EAEko musika-irratirik entzunena izatera iritsi da. Bere arrakastaren giltza, musika aukeraketa, entzuleekin konplizitatea eta kalitatezko entretenimendua dira. Entzuleekin zuzeneko eta gertuko hartu emanaren adierazgarri, hainbat ekimen arrakastatsu burutu dituzte urtean zehar: *Destination EH, Emoistazu sustutxue, Gaztea Parody*… Bestalde, 'dida!' saioko Joseina Etxeberriak, Edurne Garmendiak, Ainhoa Vitoriak eta Jon Gotzonek, Hernaniko 2013ko Txotx denboraldia inauguratu zuten. Euskal musika talde berrien artean mugarri bihurtuta dago *Maketa lehiaketa* eta 2013ko edizioan Skasti taldea arrakastarako bidean jarri du Gazteak.

'dida!'ko lagunek indar berriturik abiatu zuten irailean denboraldi berria, baita 'Akabo Bakea!'ko Amaia Artetxek eta Julen Telleriak ere. Dance musikaren aldeko apustuaren ildotik, Ibizako izar handienetakoa den PeteTong DJ Gaztean da larunbat gauero.

Gaztea mantiene firme el reto de ser el referente musical y de entretenimiento entre los oyentes jóvenes. Precisamente, en el año 2013 ha conseguido ser la radio musical más escuchada en la CAV. Las claves de su notoriedad radican principalmente en la selección musical, la complicidad con la audiencia y en ofrecer entretenimiento de calidad. En su objetivo de mantener contacto con los oyentes, ha realizado durante el año varias iniciativas, todas ellas con gran éxito de participación: *Destination EH, Emoistazu sustutxue, Gaztea Parody*… Por otra parte, el equipo de 'dida!', Joseina Etxeberria, Edurne Garmendia, Ainhoa Vitoria y Jon Gotzon, inauguró la temporada de Txotx 2013 de Hernani. El concurso de maquetas de Gaztea tiene un importante eco en el mundo musical euskaldun y otorga una importante proyección al grupo ganador, que este año ha sido Skasti.

El nuevo curso de Gaztea comenzó en setiembre con fuerzas renovadas, tanto en el espacio matinal 'dida!' como en el de la noche, 'Akabo Bakea!' que conducen Amaia Artetxe y Julen Telleria. En su apuesta por la música más dance, el exitoso Dj inglés Pete Tong, un habitual de las noches de Ibiza, pincha sus éxitos los sábados por la noche en Gaztea.










# RADIO VITORIA

Arabako eta Gasteizko errealitatea gertuko betaurrekoekin aztertu du 2013an ere Radio Vitoriak. Maritxu Diezek eta Ismael Diaz de Mendibilek gidatzen dituzten 'Araba Gaur' albistegien edizio nagusiak, eta Pilar Ruiz de Larreaen 'El Mirador' dira aktualitate horretara gehien gerturatzen diren saioak. Algararako ere gero eta tarte gehiago ageri dira programazioan, gosaritako 'El Madrugador' saioari eguerdiko 'El Madrugetako' gehitu baitzaio 2013an. Kirolari dagokionez, Baskonia saskibaloi taldearen lorpenak eta Alaves futbol taldearen bigarren mailarako igoera ozen entzun dira Radio Vitoriaren uhinetan. Horrez gain, Radio Vitoriak euskararen presentzia modu naturalean txertatu du programazioan, 'Arabako Errota' bertso saioaren eta 'Bebarruan' literatur irratsaioaren bidez.

Bestalde, irrati antzerkiaren generoa berreskuratu du Radio Vitoriak. Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiarekin eta Gasteizko Udaletxearekin elkarlanean Carlos Perez Uralde Irrati Antzerki Lehiaketa antolatu, eta 116 gidoi aurkeztu ziren lehiaketara. Urteurren berezirako prestatuta itxi du gainera urtea, 2014ean 80 urte beteko baititu EITB taldeko irrati arabarrak eta lurralde horretako emisorarik entzunena izanez abiatuko du urtea.

Radio Vitoria se ha acercado también en 2013 a la realidad alavesa y gasteiztarra. Las ediciones principales del informativo 'Araba Gaur' que conducen Maritxu Diez a Ismael Díaz de Mendibil, y el espacio 'El Mirador' de Pilar Ruiz de Larrea han analizado con detenimiento toda esa actualidad. El divertimento y el humor tienen cada vez más espacio en la programación: al espacio tempranero 'El Madrugador' se le ha sumado la edición del mediodía, 'El Madrugetako'. Los aficionados al deporte han podido seguir en directo a través de las ondas de Radio Vitoria las victorias del Baskonia y el ascenso del Alavés a segunda división. Así mismo, ha querido impulsar la presencia del euskera con el programa de bertsos 'Arabako Errota' y el espacio literario 'Bebarruan'.

Por otra parte, Radio Vitoria ha recuperado el género del radio teatro, organizando junto al Festival Internacional de Teatro de Vitoria-Gasteiz y el Ayuntamiento de la ciudad el Concurso de Radio Teatro Carlos Pérez Uralde, al que han concurrido 116 trabajos. Además, ha cerrado el año dispuesto a conmemorar un aniversario muy especial: la emisora alavesa del grupo EiTB cumplirá 80 años en el 2014 y comenzará el año siendo la radio más escuchada del territorio.




# eitb.com

## Breaking news eta web bereziak

eitb.com-ek momentuko berri nabarmenak ematearen aldeko apustua egin du (Breaking news) eta gai horiek sakon kontsultatzeko guneak ere bultzatu ditu. Hartara, Francisco aita-santu berriaren izendapena; Nelson Mandelaren heriotza; etxe kaleratzeak Euskadin eta Egunkaria kasua, esate baterako, jarraitu dituzte modu horretara, eduki eta osagai guztiekin. Azken orduari itsatsita egotearen irizpidea jarraituz, baina, aldi berean gaia modu sakonean kontsultatzeko aukera eskainiz.

## Breaking news y webs especiales

eitb.com ha apostado por las noticias relevantes del momento (Breaking news) y además por ofrecer espacios donde consultar esos mismos temas en profundidad. Así, los contenidos relacionados con la elección del nuevo papa Francisco, la muerte de Nelson Mandela, los desahucios en Euskadi o el caso Egunkaria han seguido ese criterio de estar pegados a la última hora, pero con la posibilidad de consultar un tema de manera más global.

## Emanaldi multimediak zuzenean

2013an, gainera, formatu berria estreinatu du eitb.com-ek ikuskizun garrantzitsuak erabiltzaileari hurbiltzeko asmoarekin. Kirol ikuskizun handiak, gertaera informatiboak eta 'El Conquistador' eta '101 Gaztelu'ren gisako programen emanaldiak modu interaktiboagoan jarraitzeko aukera eskaini dute. Gaur egun, emankizun multimediak 'leiho' bakarrean eskaintzen dira, idatzizko kontakizuna, zuzeneko bideoak eta audio, argazki eta beste osagai grafikoz hornituz eta sare sozial nagusietako (Facebook eta Twitter) presentzia bertan gaineratuz.

## Retransmisiones multimedia en directo

En 2013 además ha incorporado un nuevo formato para acercar hasta los usuarios eventos relevantes: desde acontecimientos deportivos a sucesos informativos, pasando por los propios programas de ETB como "El Conquistador" o "101 Gaztelu". Ahora se ofrecen retransmisiones multimedia integrando en una misma "ventana" narración escrita, vídeo en directo o editado, audio, fotos y demás elementos gráficos, junto con la presencia en las principales redes sociales (Facebook y Twitter).

# SARIAK/PREMIOS




## EiTBren sariak / Premios de EiTB

Maialen Chourraut piraguistak jaso zuen Euskadi Irratiaren 2012ko Kirolaririk Onenaren Saria.

La piragüista Maialen Chourraut fue galardonada con el premio Euskadi Irratia a la mejor deportista de 2012.




Zuriñe Zubillagaren *Bakailoa saltsan* saritu zuen Euskadi Irratiak Maite Dut Irratia lehiaketako hirugarren edizioan.

Zuriñe Zubillaga fue la ganadora de la tercera edición del concurso Maite Dut Irratia de Euskadi Irratia por el relato *Bakaiola saltsan*.



Zarauzko Skasti taldeak irabazi du aurtengo Gaztea Maketa Lehiaketa, epaimahaiaren saria ez ezik, entzuleen saria ere bai.

El grupo Skasti de Zarautz se proclamó vencedor de la XXII edición de Gaztea Maketa Lehiaketa, llevándose tanto el premio del jurado como del público.



Marivi Bilbao aktorea EiTB sariarekin nabamendu zuten Gasteizko FesTVal jaialdian. Haren alaba Elvira Urquijok jaso zuen saria.

La actriz Mariví Bilbao recibió a título póstumo el premio EiTB en la última edición del FeSTVal. Su hija Elvira Urquijo recogió la distinción.




## EiTBri sariak / Premios a EiTB

EiTBk hiru Argia sari eskuratu zituen 2013 urte hasieran. Maddalen Iriartek aurkeztu eta zuzentzen duen ETB1eko 'Azpimarra' albistegiak jaso zuen Telebista saria. Horrez gain, Euskadi Irratiarentzat bi sari izan ziren: Irratia saria Asier Leozek gidatzen duen 'Portobello' musika irratsaioarentzat eta Merezimenduzko saria Euskadi Irratiaren 30 urteentzat.

EiTB fue galardonada a principios de 2013 con tres premios Argia. El informativo diario 'Azpimarra' que dirige y presenta Maddalen Iriarte recibió el premio al mejor programa de televisión. Por su parte, Euskadi Irratia fue distinguida con dos premios: el premio de radio para el programa de música 'Portobello' que conduce Asier Leoz, y el Merezimenduaren saria a sus 30 años de trayectoria.



Radio Euskadin Eva Caballerok gidatzen duen 'La Mecánica del Caracol' eta ETB2n Jose A. Perezek zuzendu duen 'Escépticos' saioak nabarmendu zituzten Tecnaliako Kazetaritza sarien seigarren edizioan..

Los programas 'La Mecánica del Caracol' de Radio Euskadi, dirigido y presentado por Eva Caballero, y 'Escépticos' de ETB2, dirigido por José A. Perez, fueron distinguidos en la entrega del VI. Premio de Periodismo Tecnalia.



Bertoko Zuraz Eraikitzen kazetaritza sarien lehen edizioan, telebista kategorian, ETB1eko 'Sustraia' saioko Josu Butron kazetaria saritu zuten eta irrati kategorian, berriz, Euskadi Irratiko Jokin Aldazabal, 'Ekosfera' saioarengatik.

En la primera edición de los premios periodísticos Bertoko Zuraz Eraikitzen, Josu Butrón, del programa 'Sustraia' de ETB1, y Jokin Aldazabal, presentador del programa 'Ekosfera' de Euskadi Irratia, se llevaron el premio en las categorías de televisión y radio respectivamente.



# AKORDIOAK/ACUERDOS

## Saski Baskonia

Maite Iturbe EiTBko zuzendari nagusiak eta Josean Querejeta Saski Baskoniako presidenteak akordioa erdietsi zuten joan den urriaren 29an, Laboral Kutxa Baskoniak datozen hiru denboraldietan Euroligan jokatuko dituen partidak emititzeko.

Maite Iturbe, directora general de EiTB, y Josean Querejeta, presidente de Saski Baskonia S.A.D. , alcanzaron el pasado 29 de octubre un acuerdo por los derechos de emisión de la Euroliga para los tres próximos años. En virtud de este acuerdo , los aficionados al baloncesto podrán disfrutar de los partidos del Laboral Kutxa Baskonia en la máxima competición europea de clubes.

## Euskaltzaindia

EiTBk eta Euskaltzaindiak elkarrekin egingo dute lan hizkuntza kalitatearen alde, Maite Iturbe EiTBko zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia Euskaltzainburuak lortutako 2016 urtera bitarteko lankidetza hitzarmenari esker.

EiTB y Euskaltzaindia trabajarán conjuntamente por la calidad de la lengua, gracias al acuerdo de colaboración entre ambas entidades hasta 2016 firmado por la directora de EiTB Maite Iturbe y el presidente de Euskaltzaindia Andrés Urrrutia.

## TOKIKOM

Euskadi Irratiaren izenean Odile Kruzeta EiTBko irratietako zuzendari-koordinatzaileak eta TOKIKOM ordezkatuz Mikel Irizar presidenteak izenpetutako itunari esker, elkarlanaren bideari ekin diote. Asmoa, euskal esparru komunikatiboa garatzea eta trinkotzea da.

Odile Kruzeta, directora-coordinadora de las radios de EiTB, en nombre de Euskadi Irratia y Mikel Irizar, presidente de TOKIKOM, sociedad formada por medios locales en euskara, han firmado un acuerdo de colaboración que tiene como propósito desarrollar y consolidar el ámbito comunicativo euskaldun.

## Arte Eder Museoa eta Guggenheim Bilbao

EiTBk artea babesten jarraituko du, Bilboko Arte Eder Museoarekin eta Guggenheim Bilbao Museoarekin aurrez zituen konpromisoak berretsi ostean.

EiTB seguirá apoyando el arte, tras renovar los compromisos que tenía con el Museo Bellas Artes de Bilbao y el Museo Guggenheim Bilbao.

## Ikastolak eta Zinemaldia

Urtero legez, EiTBk Ikastolen Elkartearekin eta Zinemaldiarekin akordioak berritu ditu, Ikastolen jaietan eta Donostiako zine jaialdian EiTBren babesa eta presentzia bermatuz.

Como cada año, EiTB ha renovado sus acuerdos con la Confederación de Ikastolas y el Zinemaldia, confirmando así su apoyo y presencia tanto en las fiestas de las Ikastolas, como en el Festival de Cine de Donostia.

## Radio Rioja Alavesa

Odile Kruzeta EiTBko Irratietako zuzendariak eta Jokin Villanueva Arabako Errioxako Kuadrillako presidenteak berritu duten akordioari esker, Radio Vitoriak eta Arabako Errioxako Irratiak elkarlanean jarraituko dute.

Odile Kruzeta, en calidad de directora de las emisoras de EiTB, junto a Jokin Villanueva, presidente de la Cuadrilla de la Rioja Alavesa, han renovado el acuerdo de colaboración entre Radio Vitoria y Radio Rioja Alavesa.

## Euskal ekoizpena

Maite Iturbe EiTBko zuzendari nagusiak, Joxe Portela IBAIA Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteko presidenteak eta Carlos Juarez EPE/APV Euskal Produktoreen Elkarteko presidenteak lankidetza ituna sinatu dute, euskal ikus-entzunezko ekoizpen independentea sustatzeko. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak babestu du ituna.

La directora general de EiTB Maite Iturbe, el presidente de la Asociación de Productoras Audiovisuales Independientes del País Vasco (IBAIA) Joxe Portela y el presidente de la Asociación de Productoras Vascas EPE/APV Carlos Juárez han renovado el acuerdo de colaboración para apoyar la producción audiovisual independiente vasca. Un acuerdo auspiciado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

## Pilota

ETBk esku pilota profesionala esklusiban eskaintzeko hitzarmena berritu du aurten. Euskal Telebistak eta Aspe pilota enpresak sinatu dute ituna.

ETB ha renovado este año el contrato con la empresa de pelota Aspe para seguir ofreciendo la mejor pelota a mano profesional en exclusiva.













## Telebista Kontsumoa (1992-2013)

**Goranzko joera. Eguneko ia 4 orduko kontsumoa**

## Consumo Televisión (1992-2013)

Tendencia al alza. Consumo diario de casi 4 horas




## Telebista Kontsumoa - Kateak(2011-2013)

**Euskal ikusleek ETB ordu erdi baino gehiago ikusten dute egunero**

## Consumo Televisión - Cadenas (2011-2013)

Los espectadores vascos ven ETB más de media hora diaria




## TELEBISTA AUDIENTZIA (2011-2013)

**ETBk egunero ia 700.000 jarratzaile ditu.**
**ETB2 kateak du ikus-entzule gehien**

## AUDIENCIA TELEVISIÓN (2011-2013)

Casi 700.000 ciudadanos ven diariamente ETB.
ETB2, la cadena con mayor número de telespectadores

| | 2011 | 2012 | 2013 |
|---|---|---|---|
| ETB1 | 164 | 161 | 151 |
| ETB2 | 459 | 509 | 525 |
| ETB3 | 9 | 7 | 5 |
| **ETB GUZTIRA** | **632** | **677** | **681** |

| TELEBISTA KONTSUMOA KATEKA. EAE. | | | |
|---|---|---|---|
| | 2011 | 2012 | 2013 |
| ETB2 | 406 | 464 | 471 |
| TEL5 | 434 | 420 | 399 |
| ANT3 | 318 | 331 | 332 |
| La 1 | 428 | 373 | 314 |
| LA SEXTA | 220 | 195 | 287 |
| CUATRO | 177 | 238 | 197 |

Iturria / Fuente: CIES. Ikusleak milakoetan / Espectadores en miles EAE + NAF

## SHARE-A EUSKADIN (2011-2013)

**ETBk merkatu-zatia mantentzen du (%13,1)**

## SHARE EUSKADI (2011-2013)

ETB mantiene su cuota de mercado (13,1%)

2011
2012
2013

Iturria / Fuente: KANTARMEDIA







## SHARE-A EUSKADIN (2011-2013). EUSKALDUNAK

**Euskaldunen artean ETB audientzia buru (%17,4)**

## SHARE EUSKADI (2011-2013). EUSKALDUNES

ETB lidera la audiencia de Tv entre euskaldunes (17,4%)

2011
2012
2013







## TELEBISTA AUTONOMIKOEN RANKING-A (2011-2013)

**ETB bigarren, berriro ere, telebista autonomikoen ranking-ean**

## RANKING TELEVISIONES AUTONÓMICAS (2011-2013)

ETB recupera la segunda posición en el ranking de Tv autonómicas

2013
2012
2011



## ALBISTEGIAK: LIDERGOA

**Teleberri lidertzan sendo eguneko 17,4ko audientzia zatiarekin**

## INFORMATIVOS: LIDERAZGO

**Teleberri refuerza su liderazgo con un 17,4 de cuota diaria**




## ALBISTEGIAK: LIDERGOA

**Teleberri, 14 hilabetez etengabe lidertzari eusten**

## INFORMATIVOS: LIDERAZGO

**Teleberri, 14 meses de liderazgo ininterrumpidos**



## ETB1: OROTARIKO TELEBISTA EUSKARAZ

– Genero gehiago eta ikusle gehiago: albistegiak, eztabaidak, magazinak, gaurkotasuna, lehiaketak, fikzioa, euskara, kirolak, zinea, reality-ak.

– Egunero barne produkzioko 12 ordu berri.

– Egunero 8 ordu zuzeneko emanaldietan: Egun On Euskadi, Gaur Egun, Airean, Azpimarra, Euskal Herria Zuzenean.

– Apustu berriak 5 tartetan: Txoriene, Airean, Hizkamizka, Euskal Herria Zuzenean, Kontrako Eztarria.

## ETB1: UNA TV GENERALISTA EN EUSKERA

– Más géneros y más público: informativos, debates, magazines, actualidad, concursos, ficción, euskera, deporte, cine, realitys.

– Más de 12 horas nuevas de producción propia cada día.

– 8 horas diarias de Tv en directo: Egun On Euskadi, Gaur Egun, Airean, Azpimarra, Euskal Herria Zuzenean.

– Nuevas apuestas con 5 tiras diarias: Txoriene, Airean, Hizkamizka, Euskal Herria Zuzenean, Kontrako Eztarria.

## GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA ETA GERTUTASUNA
## PARTICIPACIÓN SOCIAL Y CERCANÍA

### ETB (2013)

- BOST BAIETZ
- EH ZUZENEAN
- EUSKADI GALDEZKA
- AIREAN
- DEBATEA
- TRIBUAREN BERBAK
- DURANGOKO AZOKA
- HARIAN
- UDAKO JAIAK
- BERTSO TXAPELKETA
- EGUN ON EUSKADI
- SIN IR MAS LEJOS
- ETB HOY
- EL CONQUISTADOR DEL FIN DEL MUNDO
- TU EDIFICIO FAVORITO
- EL DILEMA
- ¿Y AHORA QUÉ?
- ONGI ETORRI, CASAS CON ENCANTO
- MARIJAIA
- ARTILLERO
- BAJADA ZELEDON
- EL GUARDIAN DE LA RIA
- IMPLICADA
- ...

Entzuleak/Oyentes

| | 2012 | 2013 |
|---|---|---|
| Guztira EiTBko Irrati Taldea<br>Total Grupo Radios EiTB | 491.000 | 529.000 |
| Euskadi Irratia | 106.000 | 118.000 |
| Radio Euskadi | 202.000 | 225.000 |
| Radio Vitoria | 31.000 | 31.000 |
| Gaztea | 132.000 | 134.000 |
| EiTB Musika | 20.000 | 20.000 |

Iturria: CIES. EAE + NAF. Aste -ostir. Entzuleak milakoetan
Fuente: CIES. CAV y NAV. Lun-Vier. Oyentes en miles




# eitb.com

Erabiltzaile bakarrak
Usuarios únicos




*Urtarrilla-Azaroa// Enero-Noviembre

Iturria: Nielsen, OJD eta Google Analytics
Fuente: Nielsen, OJD eta Google Analytics

Urtarrilaren 1etik abenduaren 16ra bitarteko datuak
Datos del 1 de enero al 16 de diciembre

| | |
|---|---|
| Telebistako ordu eskaintza eitb nahieran-en<br>Horas de televisión ofrecidas en eitb alacarta | 6.925 |
| Irratiko ordu eskaintza eitb nahieran-en<br>Horas de radio ofrecidas en eitb alacarta | 9.139 |
| eitb.com-en publikatutako albiste kopurua<br>Noticias publicadas en eitb.com | 30.696 |
| eitb.com-en publikatutako audio fitxero kopurua<br>Ficheros de audio publicados en eitb.com | 17.204 |
| eitb.com-en publikatutako bideo fitxero kopurua<br>Ficheros de vídeo publicados en eitb.com | 27.078 |
| Eguneko bataz besteko erabiltzaile bakarrak*<br>Media diaria de usuarios únicos* | 70.937 |
| Hileko bataz besteko erabiltzaile bakarrak*<br>Media mensual de usuarios únicos* | 1.538.111 |
| Hileko bataz besteko erabiltzaile bakarrak eduki informatiboetan*<br>Media mensual de usuarios únicos de contenidos informativos* | 641.971 |
| Hileko erabiltzaile bakarrak bideo guztietan* (eitb.com + nahieran)<br>Usuarios únicos mensuales de todos los vídeos* (eitb.com + alacarta) | 406.494 |
| Hileko erabiltzaile bakarrak euskaraz*<br>Usuarios únicos mensuales en euskera* | 190.166 |

## EiTB Taldearen Ustiapen Aurrekontua
## Presupuesto de Explotación del Grupo EiTB

(Enpresen arteko amortizazio eta fakturazio gastu gabe)
(Sin gastos amortización ni facturación interempresas)




| | 2012 | 2013 |
|---|---|---|
| EiTB | 6.749.450 | 5.616.975 |
| ETB | 112.107.624 | 97.776.880 |
| Irratiak/Radios | 25.396.742 | 24.587.629 |
| EiTBnet | 4.557.069 | 3.341.666 |

| | 2012 | 2013 |
|---|---|---|
| EiTB Taldea Bateratua<br>Grupo EiTB Consolidado | 139.004.885 | 123.317.458 |

## Publizitate bidezko diru-sarrerak
## Ingresos por publicidad




| | 2012 | 2013 |
|---|---|---|
| ETB | 9.191.987 | 8.087.932 |
| Irratiak/Radios | 3.991.666 | 3.428.737 |
| EiTBnet | 315.373 | 304.739 |

| | 2012 | 2013 |
|---|---|---|
| Bestelako diru-sarerak<br>Otros Ingresos propios | 3.762.650 | 2.025.821 |

| | 2012 | 2013 |
|---|---|---|
| **Telebista emisioaren kostua orduko**<br>Coste/hora emisión televisión | 3.199 | 2.740 |
| **** ETBren emisio orduak (4 kate)**<br>** Horas de emisión ETB (4 cadenas) | 35.040 | 35.040 |
| **Irrati emisioaren kostua orduko**<br>Coste/hora emisión radio | 579 | 561 |
| **** Irratien emisio orduak (5 kate)**<br>** Horas de emisión RADIO (5 emisoras) | 43.800 | 43.800 |
| **Kontratazio prezioetan aurreztu dena iazko urtearekin alderatuta**<br>Ahorro en precios de contratación sobre año anterior | 17,5% | 9,6% |
| **Lanerako hutsegite-tasa EiTB Taldean**<br>Tasa de absentismo laboral en EiTB | 2,48% | 2,46% |
| **Hornitzaileen gogobetetze maila (0-10)**<br>Satisfacción general de los proveedores (0-10) | 8,7 | 8,6 |

Honako dokumentu honek EiTBk 2013. urtean barrena egindako jardueren laburpena biltzen du.

Este documento recoge el resumen de las actividades de EiTB durante el año 2013.

EFQM Excellence award Prize

AENOR Registered Company ISO 9001

AENOR Registered Company ISO 18001

Euskadi 2007

GRI REPORT GRI CHECKED A+

AENOR Environmental Management ISO 14001

eitb